Donostian, 2018ko Azaroaren 26an

Elkargokide agurgarriak:

Oraingoan, **bigarren hautagaitzatik** agurtzen zaituztegu (**boto txartel URDINA**).

Dakizuen moduan Gipuzkoako Psikologia Elkargoaren Gobernu Batzordearen hautaketaren hauteskunde eguna iristear dago.

Hauteskunde kanpainaren hasieran gure lehen mezua iritsi zitzaizuenaren esperoan aurkitzen gara, non, gure aurkezpen labur bat burutu genuen eta gure helburuak zeintzuk izango diren adierazten genituen.

Gure kurrikulumetan ikusi daitekeen moduan, orientazio eta formakuntza desberdineko psikologo taldea gara. Garratzitsutat hartzen dugu Psikologiaren alor eta korronte ezberdinak kontutan izan daitezela, beraz, alor bazterturik gelditu ez dadin, **orientabide denek** Elkargoaren barnean garapen prozesu bat edukitzeko aukeran sinisten dugu.

Aurretik bidalitako jakinarazpenean aipatu genituen abian jarriko ditugun jarduerak zeintzuk izango diren. Hala ere, honek ez du esan nahi ekintza hauetan soilik arreta jarriko dugunik, beraz, elkargokideen aldetik interesa balego beste alor batzuk ireki eta landu ahal izateko, zuen proiektu zein planteamenduak aurkeztuz guregana gerturatzerik besterik ez duzue.

Lau urteetan zehar, jardueren erritmoa modu iraunkor batean burutu ahal izatea gustatuko litzaiguke, eta ez soilik hauteskundeen aurreko hilabateetara edota garai zehatzetara murriztuz.

Bestetik ere, **elkargokide berriei** gure gertutasuna adierazi nahi diegu. Ibilbide profesionalaren hasiera ez baita beti erreza izaten, eta Elkargoak honelako egoeretan aholkuak eman, zalantzak argitu eta lehen urratsetan lagundu behar duela uste dugu. Ezin dugu ahaztu zuek izango zaratela egunen batean txanda hartuko gaituzuenak.

Lehenego gutunean aipatu genuen moduan, **Elkargoa “guztion etxea izatea”** lortu nahi dugu eta ahaleginak egingo ditugu sortzen diren ekimen sendoak bermatzeko.

Oraindik denon artean lan asko egitear dago, eta argi dugu, Gobernu Batzordea honen eragile nagusia izan beharko litzatekeela, proiektu eta ekimen desberdinak erraztuz eta denon artean aurrera pausoak emanez.

Gu ezagutzeko aukera eduki izana espero dugu. Gauzak egiterakoan planteamendu desberdin bat eskeini nahi dugu ikuspegi desberdinak bateratuz.

Gure taldekideen arteko aniztasunak ezaugarritzen gaituela uste dugu, hala nola, kudeaketan eta baloreen arteko bateratasunak ere lotzen gaituela pentsatzen dugu. Proiektu honetan ahalegintzeko ardura genuela uste genuen eta honela burutzen saiatu gara.

Oso zaila egin zaigu zuzenean zuengana iritsi ahal izatea, elkargokideei zuzeneko sarbide falta eduki izanagatik, eta hautagaitza alternatiboarentzat hauteskunde prozesu murriztaile batean egon izanagatik.

Gure aldetik, ahal izan ditugun baliabideak erabiliz gure mezua zabaltzen saiatu gara. Hala eta guztiz ere, gurekin harremanetan jarri nahi ezkero ondorengo posta elektronikora idatzi dezakezue edozein zalatza edota galdera azalduz: **eleccionescopgi2018@gmail.com.**

Azkenik aipatu, Elkargoaren zein kudeaketa eredu nahi duzuen erabakitzea zuen eskutan geratzen dela. ABENDUAREN 1ean, LARUNBATEAN, goizeko 10:00tatik arratsaldeko 17:00tara zuek duzue hitza eta eskumena. libreki bozkatu dezazuen animatzen zaituztegu!

Besterik gabe, adeitasunez agurtzen zaituztegu Sonja, Cristina, Amparo, Lara, Yolanda, Uxue, Maider eta Cristina.

BOTO TXARTEL URDINA

Oharra: aurrekoan bidalitako dokumentuak atxikitzen dizkizuegu, zerbait berriro ere begiratu nahi baduzue.